gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

SARRERA/ENTRADA
gipuzkoa BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES
2020 AZA. NOV. 26
ZK/N.º 1894
ESP/EXP 11/C/34/874

Agiri-mota:	**Ebazpen-proposamena /Propuesta de resolución**
Data:	2010-11-24
Nori zuzendua:	BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea:	Juankar Izagirre Hortelano, Maria Valiente Gonzalez
Batzarkide taldeak:	EH Bildu, Elkarrekin Gipuzkoa

IZENBURUA

Mendebaldeko Saharako su-etenaren amaierari buruzko Ebazpen Proposamena, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

OSOKO BILKURAN BIDERATZEKO ARRAZOIA

Indarrean dagoen Batzar Nagusien Araudiko 151. artikuluak eta hurrengoek diotena ezarri behar denez, proposamena egin duen taldeak eskatzen du ebazpen-proposamen hau Osoko Bilkuran eztabaidatu, eta, hala badagokio, onartzeko. Ebazpen-proposamenak zuzendaritza politikorako tresna dira. Ebazpen-proposamenen bidez Batzar Nagusiek gai bati buruz duten iritzia adierazten dute. Araudiak dioen bezala, Batzar Nagusiei gai jakin baten gainean erabaki bat harrarazteko eta politika-ekintza eta gobernu-ekintza sustatzeko dira ebazpen-proposamenak.

Batzar Nagusien Barne Araudiko 152.2 artikuluak honela dio: "Idatzia kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Mahaiak, gaiaren garrantzia eta proposatzailearen iradokizuna kontuan hartuta, Osoko Bilkuran edo dagokion batzordean bideratzeko aginduko du".

Beraz, proposamen hau Osoko bilkuran eztabaidatzea eskatzen dugu gaia oso garrantzitsua baita eta, modu horretan, batzarkide guztiak bertan egon daitezen eta beren borondatea adieraz dezaten bakoitzaren botoaren bidez.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrak bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar

Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

EBAZPEN-PROPOSAMENA

1.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek zalantzarik gabeko elkartasuna adierazten diote saharar herriaren eta haren legezko ordezkari Fronte Polisarioaren borrokari.

2.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Marokoko Erresumari egozten diote 1991eko su-etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzukizuna.

3.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek MINURSOri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela eskatzen diete; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela.

4.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala eskatzen diote; izan ere, Lurralde Ez-autonomoa da, Marokok legez kanpo okupatua, NBEren agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.

5.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara "de iure" administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala exijitzen diote eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik.

6.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen dituzte euskal herritarrak.

Proposatzailearen sinadura
Juankar Izagirre Hortelano
Euskal Herria Bildu

Proposatzailearen sinadura
Maria Valiente Gonzalez
Elkarrekin Gipuzkoa